



Euskal Autonomia Erkidegora heltzean egin beharreko izapideak.

- Laburpena

- Espainiako estatutuan egonaldia egiteko baimena (bisa, pasaporte, ...). Bere jaiotze-herritik ekarria.
- Bizileku bat bilatu Euskal Herrian.
- Atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) lortzeko eskaera.

- **Europako erkidegoko laguntzaileak**

- Europako Erkidegoko egoiliar-ziurtagiria lortu ([EX-18](#) eredua)

- **Europako erkidegokoak EZ diren laguntzaileak**

- Atzerritarraren identifikazio-txartela (AIT) lortu: eredua [EX-17](#)
- Identifikazio Txartela Berritzeko eredua: [EX-00](#)
- Britainiar nazionalitateko hautagaiak:

Herrialdera 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera iristen diren eta **aurrez bertan bizi izan direla egiaztatu ezin duten britainiar nazionalitateko parte-hartzaile guztiak** Atzerritarren Araubide Orokorraren mende geratuko dira, bizileku edo egonaldi baimena lortzeari eta izapidetzeari dagokienez, bai eta Atzerritarraren Identifikazio Txartelari dagokionez ere.

Atzerritarraren Identifikazio Txartela (AIT) eskatzeko, [EX-17](#) inprimakia erabili beharko da.

⇒ [Informazio gehiago](#) ⇐

Eskabide-ereduetarako sarbidea: [Eskaera ereduak](#)

- Euskal Autonomia Erkidegoan banku-kontu bat ireki, AIZ agiriarekin.



Banku-kontua ireki eta datuak bidali, laguntza ekonomikoa jaso ahal izateko

- Beharrezko dokumentazioa

Hizkuntza Laguntzaileak **banku-kontu bat** ireki beharko du hileroko laguntza jaso ahal izateko.

Bankuan pasaportea eta dagokion identifikazio txartelaz gain (AIZ, ANT edo Europar Batasuneko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiria), Hizkuntza Laguntzailearen izendapena ere aurkeztu beharko da.

Banku-kontu korrontea zabaldu ondoren, [«Hirugarren Alta emateko Fitxa»](#) bete beharko da. Fitxa Hizkuntza Saitetik bidaltzen zaio Hizkuntza Laguntzaileari. Dokumentu honek Hizkuntza Laguntzailearen sinadura eta bankuaren zigilua eduki behar ditu.

Fitxa bete ondoren, kontua zabaldu deneko datu pertsonalekin batera (Pasaporte, A.I.Z., ...) helbide honetara bidali behar da: hizkuntzalaguntzaile@euskadi.eus

Baimena berritzen dutenak Euskal Autonomia Erkidegoan bertan.

- Identifikazio Txartela Berritzeko ereduak [EX-00](#); Europako Erkidegokoak **ez** diren laguntzaileen kasuan.
- [HIRUGARREN ALTA](#) izeneko agiria, bakarrik bankuaren kontu-zenbakia aldatu baduzu.



Agiri hauek behar dira AIZ, ANT edo Europar Batasuneko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiria lortzeko:

- **Beharrezko dokumentazioa**

- ✓ Pasaportea edo identifikazio txartela eguneratua eta haien fotokopiak (agiriok indarrean egon behar dute)
- ✓ Argazkiak (pasaporte-tamainakoak)
- ✓ Hizkuntza Laguntzaile aritzeko izendapena, erakunde eskudunak emanda.
- ✓ Dagokion eskaera beteta (EX15, EX17, EX18, EX00, EX23, ...):
[Eskaera ereduak](#)
- ✓ Izapide bakoitzari dagozkion [tasak](#) ordainduta eduki behar dira.

- **Aurkezteko lekuak:**

Dagokion dokumentuaren eskaera atzerritarrak berak aurkeztuko du Atzerritarren Bulegoan edo, halakorik ezean, bere egoitza dagoen tokiko polizia-etxean, eta aldez aurretik hitzordua eskatuko du esteka honen bidez:

[Hitzordua eskatu](#)